

# ...eta **kitto!**

758 zkia. 2011-IV-1

ASTEKARIA

TOKIKOM



## Zaletasuna bizitzeko VALENCIAGA MEMORIALA / EUSKAL HERRIKO ITZULIA aukera paregabeak

Zure bizikletarendako **ZENTRU TEKNIKO**A

Barrena, 32 Eibar  
943 121895

Bisita gaitzazu!



**POLAR**

**GT**

**MERIDA**

**SHIMANO**



700 metro **ZIKLISMOARI  
ESKAINIAK**

**MONDRAKER**




▪ AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.

▪ KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

# VENTANAS ONA LEIHOAK

LEIHO, PERTSIANA,  
TOLDO eta beste hainbat  
ipintzen ditugu.

Norbanako, komunitate  
eta bestelakoendako  
**KONPONKETAK**  
**ETA MANTENIMENDUA.**



*Berriro ere  
zuekin*

*izenez aldatu badugu ere*

*Lehenagoak gara  
lehenago tokian  
eta lehenago kalitateak es-  
kainiz*

Bidebarrieta, 28 - behea

Tel. eta Faxa: 943 20 28 28

Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358

E-maila: ventanas.ona@gmail.com

RPS 04/02

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu\*

IRAZABAL  
clínica dental



\* Hortz-inplanteekin  
egindako  
tratamenduentzat.  
Promozioak 2011ko  
maiatzaren 1era  
arteko balioa du.  
**EZIN ZAIE**  
beste promozioeoi  
**GEHITU.**

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.  
Tel. 943 208552



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhua Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HARIXA(K) EMON.-** Torlojuan edo zuloan haria egin. "Harixa(k) emon lehenengo torniuan ardatzari, eta gero honegaz terrajiri, ar-emiak eukitzezko".

**HARIXA HARTU.-** Torlojuak emearen hasierako hari batean edo bitan zuzen ahokatzeari. "Ez dau gura harixa hartu torlojo honek".

**HARIXA IXO.-** Haria hondatu. Gaztelarazko 'pasarse de rosca'. "Hainbeste lotu eta soltau bahabil, laster ixoko dok harixa".

**HARIXAN LOTU.-** Torlojoz lotu. Gaztelarazko 'atar a rosca'. "Harixetan lotutakua, gogorragua ulziegagaz josittakua baiño".

## ESKUTITZAK

### GURE UMIERI TRANPAK EGITTEN ERAKUTSIKO DETSAGU

Zer pozik nagan! Laster urte bi egingo dittut eta uda ostian ikastolara juango naiz. Baiña pena haundia be badakat, nere bizilagun Jon ez da nerekin etorriko eta.

Aurreko egunian aitaixorekin udaletxera juan nintzan eta bertan paper bat emon zeskuen. Aitaxo oso pozik zeguan, amamak siñatutako dokumentuarekin dana ondo zeguala esan zetsen eta.

Baiña etxera heltzian, komerixak! Amatxo papera ikustian haserretu eta aitaixorekin eztabaidan hasi zan. Amamaren etxera bizitzera juango nintzala entzun neban eta negar batian hasi nintzan. Orduan, aitaixok goxo-goxo besuetan hartu ninduan eta lasaitzeko eskatu zestan: tranpatxo bat besterik ez zebala egiñ. Amama ikastolaren ondun bizi denez, ni amamaren etxian biziko banintz moduan esan genuala udaletxian eta, holan, puntu gehixago lortuko

genittuala ikastolan sartu ahal izateko. Guraso askok gauza bera egitten ebela, baita AMPA-ko kide batzuk be; gaiñera, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza Sailak, Udalak eta ikastolak berak be onartzen zeben gauzia zala hori. Hori bai, Jonen gurasuak ez zeben tranpatxo hori egiñ (honek leloak!), ikastolatik kanpo geratu da Jon koittaua.

Gaur aitaixori zera galdetu detsat:

- Aitaixo, uda ostian ikastolara juan biharrian amamaren etxian geratuko naiz egun osuan, haren erroskilla goxuak jaten.

- Baiña, zer zabiz esaten? Zu ikastolara juan bihar zara!

- Bueno, aitaixo, ikastolara juan naizela diñuan papera udaletxian eskatuko dot eta listo. Tranpatxo bat besterik ez da...

MIREN ROS AIARZAGUENA

asteka

HEMEROTEKA

esaldia

"XX. mendean zehar hirukoiztu egin gara: plaga izugarria gara eta, gure kopuruari eusteko, planetak ehunka urtetan ekoizitakoa kontsumitzen dugu urtero. Hondamendi ekologikora heltzeko biderik laburrena umeak erritmo honetan izaten jarraitzea da. Gizarteak zenbat eta garatuagoak izan, hainbat eta ume gubxiago dituzte. Eta gure kulturari iraurarazteak ez dauka zerikusirik gure abizenei irauraraztearekin"

(Fredí Paia, bertsolaria)

"Euskara despolitizatu behar dela hainbeste entzuten dugun uneon, euskarak politikan sartu behar du, bere buruz, ez besteek eramana. Diote 'terrorismoak guztia baldintzatu du euskal gizartean eta, jakina, baita hizkuntza ere'. Hizkuntza? Ez al gara ba bizi gizarte elebidunean? A, ez! Bestea ez du kutsatu ahal izan terrorismoak: gaztelania ez-baldintzagarrria, ez-kutsagarria eta askatasunaren fresna da. Euskara, terroristen!"


(Koldo Izagirre, idazlea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

# autuan

## DIRU-LAGUNTZAK

Atzo arratsaldian sinatu eben herriko alkartiak udaletxian Euskara-Kultura departamentutik 2011rako onartutako diru-laguntzen inguruko hitzarmenak: danera 247.000 bat euro (41 millioi pezetatik gora) banatuko ditue Udaletik herriko hainbat kultura talderen artian, urtian zihar antolatzen dittuen ekitaldikak antolatziaik eragitten dittuan gastuekin laguntzeko.

## EIBARRI BURUZKO BLOG BARRIXA

Eitb.com atarixak atal barrixa ipiñi dau martxan, hainbat herriri eskindutako blog-ak sortuta eta horretako batian Eibarri buruzkuak batu eta zabaltzen juango dira. Donostiak, Arrasatek, Amorebietak eta Bermeok be badake euren tartia eta bertan, azken albistiak, argazkixak edo bideuak ikusi eta udalerrixen gainian sare sozialetan esaten dana jarraitzeko aukeria dago.

## PAGATXAREN ERAKUSKETIA

Untzagako Zentro Sozialak Pagatxa emakumien alkartia antolatutako eskulan erakusketia inaugurauko dau gaur bertan, 20.00etan. Apirillaren 15era arte martxan egongo dan erakusketia bisitatzeko ordutegixa jarraixan emoten doguna da: astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara et zapatu eta domeketan 11.30xetatik 13.30xetara eta 19.15etatik 21.15etara.

## Sortu legalizaziaren alde

**EIBARKO ETA SORALUZEKO GERNIKAKO AKORDI-XUAREN ALDEKO TALDIAK EGUAZTEN ARRATSALDIAN EMONDAKO PRENTSAURREKUAN** bixarko Bilbon "Euskal Herriarentzat normalizazioa. Legalizazioa orain" leluari jarraitua deittu daben manifestaziñuarekin bat egingo dabela emon eben aditzera eta, agerraldixan irakorri eben adierazpenaren arabera, "herriartar orori Bilboko kalietan egingo dan manifestaziñuarekin bat egitteko deialdixa zabaldu nahi detsagu, Euskal Herrixan normalizaziño politikoruntz urrats senduak emoteko exigitzeko".

Auzitegi Gorenak Sorturen inguruko ebazpenarekin "Eus-



Autobusa izango da Eibartik eta, izena emoteko, Monteka eta Deporrera juan bixarko da. / SILBIA HERNANDEZ

kal Herrixan normalizaziño politikua eta bakia lortzeko zabaldu dan aro barrixa zapuztu" nahi dabela salatziarekin batera, estaduak Euskal Herrixan "iñolako kontrapartida barik edozein jarduera politiko legalizatu eta normalizatu bihar dabela" gaiñeratu eben, euskal gizartiaik bake eta normalizazi-

ño politikorako dakan gogua azpimarratziarekin batera. Bilboko manifestaziñora juateko autobusak antolatu dittue: Soralezetik 16.00etan urtengo da autobusa (Amutxastegitik) eta ordu erdi geruago, 16.30xetan, Eibartik, Ego Gainetik (izena emoteko Monteka eta Depor tabernetara jo leike).

## Toribio Etxebarria sarixetarako finalistak

**DATORREN ASTIAN, EGUENIAN BANATUKO DITTUE COLISEO ANTZOKIXAN XXI. TORIBIO ETXEBARRIA ENPRESA SARIXAK** 19.00etan hasiko dan ekitaldixan eta, oindiok irabazlien izenik ezagutzera emon ez badabe be, antolatzailiak finalista geratu diran enpresa proiektu eta ideiaik zeintzuk diran azaldu dabe. Enpresa barrixeri eskindutako atalerako lau finalista aukeratu dittu epai-mahaixak: Reiner Microtek (Itziar, Gipuzkoa), Blue Agro (Donostia), Graphenea (Donostia) eta Regennia (Donostia). Eta enpresa ideieri eskindutakuan, barriz, bost proiektu sailkatu dira: Wattio (Donostia), Ddocuments Software (Bilbo), 12Mapp (Lasarte) eta Luix-Iluminación Inteligente (Donostia). Aurtengo ediziñuan 35 hautagaik hartu dabe parte, hamazortzik enpresa ideien atalian eta hamazazpik "Sormena eta barrikuntza teknologikua enpresan" izenburu-



35 hautagai izan dira aurtengo sarixetan.


kuan. Irabazle guztien artian 100.000 eurotik gorra banatuko dittue antolatzaille zein babesliaik.

## DORI BRAVO VICENTE

(MODESTO BASTARRIKAREN EMAZTEA)

### 4. URTEURRENA

*ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.*







## Atutxak Auzitegi Gorenian deklaratu dau

**MADRILGO AUZITEGI GORENAK ETA-REN BIZKAIA KOMANDUAREN USTEZKO KIDE ETA KOLABORATZAILLIEN KONTRA** egiten diharduen epaiketan lekuko moduan deklaratu izan zan martitzen Benjamin Atutxa Eibarko ziñegotzi eta legebiltzarkide sozialistak. Izan be, Atutxak 2008ko uztaillian jakin eban ETAK bera bahitzeko asmu zekala, atxiloketa batzuren haritik agertutako dokumentaziñuaren araberrako informaziñuagaitik. Orduan bizi

izandako egoerierekin konparatu, aste honetan zabaldu dan bideoan ikusittakuak *"plan horrek ezagutu zittuanian baiño min haundixagua emon zetsala"* onartu dau egunotan Atutxak eta, horrekin batera, ETAKo ustezko kidiak *"bahitu eta hil"* bihar ebala esaten daben bideua ikustian *"bildurra eta hotzikarak"* sentidu zittuala. Atzo bertan Legebiltzarreko kidiak babesa eta alkartasuna adierazi zetsazen Atutxari, bertan onartutako adierazpenarekin.

# auzoric auzo



## Valenciagako biala eta pasarelia aurrera

**Valenciagako biala zabaltzeko proiektua eta Amaña eta Otaola kaliak lotzeko pasarelia egitteko biharrak lizitaziñora etaratzeko** erabagixa hartu barri dabe Udalian eta, onartutakuari jarraituta, danera 730.000 euro erabilliko dittue horretxek pagatzeko (pasareliaren biharrengaittik 499.979 euro pagauko dittue eta bialaen biharrengaittik, barriz, 229.097 euro). Berez proiektu diferentiak izanda be, bixak inguru berian egin biharrekuak izatian batera lizitaziñora etara eta modu paraleluan egitten juatia begittandu jakue egokixena agintarixeri. Biala zabaltzeko proiektuari esker, Mendiguren y Zarrua fabrikiak bete eban terrenuaren eta Alfa tallarren bittartian dagan bidia bikoiztu egingo da norantza bikua bihurtuta. Bestalde, Amañan bizi diranak Ipurua aldera juateko bide zuzena sortu nahi dabe pasarela barrixa eraikitta. Holan, kiroldegira, Eroskira eta inguruko beste tokixetara juan nahi dabenian buelta osua emoten jardun barik, Mendiguren y Zarrua eguaneko terrenuaren gaiñetik juango dan pasabidia erabillitta errezago eukiko dabe bertara juatia.

## eibar kaleka

### Saratsuegi kalia

Iparragirre kalia baiño gorago eraikittako etxiak dagoz Saratsuegin eta kaliak han inguruko basarri baten izena daka. Saratsuegi (Sautsi Hemetikua) basarrixaren lehelengo aittamena 1747. urtekua da eta orduan bertan bizi zan Joseph de Loiola. Etxe parian matadero moduan erabiltzen zan txabola txiki bat euki eban.

**Pegora kopurua: 7**

**Erroldatutakoak: 273**



## Armerixa Eskolako Ikasle Ohiak

**AURREKO ZAPATUAN EDERTO IBILLI ZIRAN ARMERIXA ES-KOLAKO IKASLE-OHIEN BATZARRIAN** parte hartzera animau ziranak. Goizetik eskolan bertan, alkartiak dakan lokalian garatu zittuen ekitaldixak, batzarrarekin hasitta eta, jarraixan, alkartiak antolatzen daben argazki lehiaketako azken ediziñoko irabazliak sarixa jaso eban. Arrate hotelian bazkaldu aurretik eta urteroko ohittuari kale egin barik, eskolaren ate parian, eskillaretan batutako guztien talde-erretratua etara eban.

asteko  
80.000  
datua

erosketatik gora egin ziran iaz Eibarko Komertziantien Elkarteko txartelarekin. Gaur egun 4.500 txartelatik gora dagoz aktibo eta erabiltzaillak ekaiñera arte izango dabene deskontuak aprobetxatzeko kanpaiña berriz zabaldu da.

## Errenta Aitorpenerako sasoia

**ASTE HONETAN BERTAN EGIN DETSE ERRENTA 2010EKO KANPAINIAREN BARRUAN** Ogasun eta Finantza departamentuak autolikidaziak bidaltzeari: Gipuzkoako 224.066 lagunek etxian bertan jasoko dabe autolikidaziarako proposamena eta, onartuz gero, ez dabe aparteko tramiterik egiteko premiñarik izango. Urtetik urtera autolikidaziak proposamenen kopuruak gora egiten dihardu: iaz 211.000 proposamen bialdu zittuen eta aurten %4 gehiago dira bialdutakuak. Egunero 25.000 bat proposamen bialduko dittue Gipuzkoako Ogasunetik eta apirilaren 12rako bidaltzeko daguazene guztiak interesaren eskutan egongo dirala aurreratu dabe. Autolikidaziak onartzeko epia, barriz, apirilaren 12xan bertan zabaldu eta ekaiñaren 6xan amaittuko da. Itzulketak be hillaren 12xan bertan hasiko dira eta Ogasunak itzuli biharreko dirua 48 orduko tar-

tian pagatzeko konpromisua hartu dau. Gaiñontzeko modalidadiendako (mekanizua, internet bidezkoa eta paperezkoa) aitorpena egiteko epia apirilaren 18xan hasi eta ekaiñaren 25ian amaittuko da. Aitorpena egiteko hitzordua aurretik 902 100 040 telefonora deittuta hartu dabene apirilaren 15a eta ekaiñaren 10a bitartian egin biharreko dabe aitorpena. Informaziño gehixagorako Errenta 2010 kanpaiñaren web orrixa ([www.ogasuna.info](http://www.ogasuna.info)) konsultau leike edo bestela 902 100 040 bezeruen arretarako telefonora deittu.



## Gaur hasiko da Loirako autobus zerbitzua

**GAUR BERTAN HASI ETA IRAILLAREN 30-ERA BITARTIAN, EIBARTIK LOIURA, AIREPORTURA AUTOBUSEZ JUATEKO** (eta bertatik hona etortzeko) aukeria izango dau nahi dabene, martitzenian Eli Gómez Ezker Batua alderdiko zinegotzikak prentsaurrekuan azaldutakuari jarraituta. Bere alderdixaren ekimenez abiatutako alegaziñuan, Donostia eta Loiuo aireportua lotzeko autobus zerbitzua zabaldu eta Eibarren geratzeko eskaeria jaso eben, "Eibar eskualdeko hiri nagusixa dan neurrixan, bertakuak ez eze inguruko beste herrixetakuak be zerbitzuaz bialitzeko modua euki deixen".

Eibarko zinegotzikak martitzenian bertan eskratu eban Foru Aginduak jasotakuari jarraituta, Pesa S.A. enpresak izango dau zerbitzuaren ardurua eta, hasiera batian eta herritarren erantzuna zelakua dan ikusi bittartian, modu probisionarian apirillian hasi eta irailla amaittu bittartian eskinduko da. Zarautz eta Loiu artian bidaiazteko txartelak 13'30 euro balixoko dau eta Zarautz eta Loiu artekuak 7'30 euro. Linea nagusixan gertatzen dan moduan, bidaia ezin izango da txartel bakarraren bittartez pagau. Horren harira, etorkizunian txartel bakarraren bidezko ordainketa lor-



Eibar eta inguruko zerbitzu berriz aprobetxatzia espero da. Irudixan, Eli Gómezek eskindutako prentsaurrekua. / SILBIA HERNANDEZ

tzeko pausuak emoteko prest agertu zan Gómez. Zerbitzua jarraixan emoten dittugun ordutegixeri jarraituta eskinduko da: Zarautz-Eibar-Loiuo aireportua ibilbidian Zarautzetik 05.30, 09.30, 14.00 eta 17.30xetan urtengo da, Eibartik 06.10, 10.10, 14.40 eta 18.10ian eta Loiuetik 07.00, 11.00, 15.30 eta 19.00etan. Eta Loiuo aireportua-Eibar-Zarautz ibilbidian Loiuetik 07.00, 11.30, 15.30 eta 20.30xetan urtengo da, Eibartik 07.45, 12.15, 16.15 eta 21.15etan eta Zarautzetik 08.30, 12.30, 17.00 eta 22.00etan.



## Deba Energy, barriztagarrixen alde


**EDUARDO ZUBIAURRE, IÑIGO PEREZ ARREGI, ION ANDER BUENETXEA, JUAN ANGEL BALBAS, ALEX BENGUA, JESUS MARI IRIONDO ETA EDUARDO JUNQUERA**, erretratuan ikusten dittuzuenen ekimenez jaixo da Deba Energy izenekua. Debabarrenako enpresari honek batzen dittuan taldiak energia barriztagarrixen bidez gure eskualdeko enpresak indartzia billatzen dau eta, horretarako, Deba Energy marka korporatibua eratu dabe Alfa, Grupo Egile, EPC Groupe Eu-

rope, Jaz Zubiaurre, Maser Electrónica, Tekniker-IK4 eta Debegeasak.

Alkarte berriztagarrixen alde energia ildori segitzeko asmua dakala aurreratu dau: energixia aurrertzia, sortzia, banatzia eta pillatu edo gordetzia. Honezkero proiektu bi dittue esku artian, bata eguzki-hotzaren arlokua eta bestia energia sorkuntza barriztagarrixaren arlokua: lehelengo proiektu horretarako klimatizaziñuan erabiltzeko ur berua ur hotza bihurtzeko ahalmena dakan makiña termodinamikua garatuko dabe.


*Krisixarekin batera, langabezixa asko igo da, batez be gaztien artian. Baiña emoten dau Alemania moduko herrialde batzuetan zeozer errekuperatzen hasi dirala eta horren zantzuak datoz honaiño. Estudixuak dittuan jendia eskatzen hasi dira eta hamendik bertara juateko planak egitten hasi da bat baiño gehixago.*

## Animatuko ziñake kanpora juaten biharra dala-eta?



**ANE URKIOLA**  
23 urte  
komunikatzaillia

Juango nitzake. Izan be datorren urtian kanpora noia biharrera. Hamen dagan lan egoeria, behintzat nere alorrian, zinia eta telebisiñuan, ez da ona eta gaiñera esperientzia aberasgarria be izan leike. Nere helburua ondo formatu eta gero ikasittakua Euskal Herrixan garatzia da.




**TAHA BENSARGHIN**  
14 urte  
ikaslia

Bai, biharrik ez badago, beste norabaittera juan biharko nitzake bila, ez? Ez jatan inportauko kanpora juatia, baiña betirako juatia... Hori ez jatan gustauko. Pozik bizi naiz hamen-eta.

**SANTI OLARTE**  
14 urte  
ikaslia

Bai, izan leike. Hamen lanik ez badago eta, besterik ez badago, juan egingo nitzake. Baiña betirako ez nitzake juango, hamen modura ez dot uste iñon bizi leikianik-eta. Tenporadatxo baterako bai, baiña iñondik iñora bez betiko.



**LARRAITZ SODUPE**  
22 urte  
ikaslia

Bai, juango nitzake. Esperientzia barrixa eta jente barrixa eza-gutzeko aukeria dala uste dot. Baiña ez nitzake betirako joango; hona bueltauko nitzake. Ez dot nere burua betirako kanpuan ikusten.



PREST



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**ATE IREKIAK**

ARETO MAGUSIAN  
Eharré aurteñik izena eman!

**Goi Eskola Politeknikoa**

**ARRASATE APIRILAK 2** larunbata, 11:00 *master unibertsitarioa*

**Enpresagintza Fakultatea**


**OÑATI APIRILAK 2** larunbata, 11:00

**IRUN APIRILAK 9** larunbata, 11:00

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**ESKORIATZA APIRILAK 14** osteguna, 18:00





# Errepublikia esnatu zala 80 URTE PASAU DIRA

*Astelehenian presentau eben Portalean II. Errepublikariaren aldarrikapena gogoratzeko Udalak antolatatu daberen programaziñua osatzen daberen ekitaldixak. Gaur arratsaldian inaugurauko daberen "Forges" dibujantiaren biñeta-erakusketiarekin batera abiatuko dan programaziñuan hainbat hizlarik eskinduko dittuen berbaldixak dagoz, baiña euren esplikaziñuak kokatzen laguntzeko orduan sasoiko musikia gerturatuko deskue eta, horrekin konforme ez eta urtietan atzera biajatzeko txartela be esku-eskura ipiñiko deskue Teatro Interior taldekuak, "Republicados" antzezanari esker. Eta hori guztia 1931ko apirillaren 13 hartan udaletxe pareko plazia bete eben herrittarrak beste iñun baiño lehenago II. Errepublikia aldarrikatu ebela gogoratu eta ospatzeko, gure herrixaren historixan aparteko pisua dakan gertaeria bizi ebela 80 urte beteko diran honetan.*

**A**pirillaren 13a beti, urtero izan da berezixa gurian 1931. urtian bizi izandakua ostian eta momentu historikua zuzenian bizi izandakua urtetik urtera gitxitzen juaten badira be, atzetik etorritako generaziñuak errelebua hartzen juan dira, jentia goguan izan deitan, errekauxa txarto jasotziagaittik edo, beste barik, Alfonso XIII.a erregiak ospa noiz egingo eban irrikitan itxoiten eguzelako, II. Errepublikako banderia udaletxeko balkoian ipintzen lehelen-guak eibartarrak izan zirala. Eta ausardixa horrek protagonista

izan ziraneri emondako harrotasun puntu horretatik aparte, gure herrixaren armarrixan irakorri geinkian "Hiri guziz eredugarria" titulua Niceto Alcalá Zamora Errepublikako presidentiaren eskutik jasotzia ekarri eban, beste kanbixu batzurekin batera.

Untzaga eta inguruak Errepublikaren kolorekin jantzi zittuala 80 urte beteko dira aurtan eta, hori ospatzeko, programaziño berezi eta zabala preparau dabe Udalian, Euskara eta Kultura batzordian. Ekitaldixak nundik nora juan diran azaltzeko emondako prentsaurrekuan, Miguel

de los Toyos alkatiak aurtengo berezittasuna nundik datorren esplikau eban: "2001az geroztik, Errepublikaren aldarrikapenaren harira zeozer berezixa bost urtian behiñ antolatzia erabagi genduan. Holan, ekitaldixak urtero izan biharrian bost urtian behiñ eginda, antolatzen diranen inguruko oihartzuna eta garrantzixa haundixagua izatia lortzen dogula pentsatzen dogu. Lehelengo programaziño berezixa 2001ian antolatatu genduan, bigarren 2006xan eta aurtan, 2011an, hirugarrenaren txandia aillegau da". Holan, eta bestiak beste martxan daguazen Antzerki Jardunaldixekin eta maiztarian ospatzekua dan Euskal Jaixarekin bat eginda, hitzaldixak, erakusketia, antzerkixa, musika emanaldixa eta beste hainbat batzen dittuan programia osatzia lortu dabe.



## Forges-en erakusketia eta hitzaldixa

Beti be Errepublikia ardatza izanda, gaur arratsaldian bertan ekingo detse programiari, pisuzko izena dakan komikigilliaren hainbat lan batuko dittuan erakusketia Portalean inaugurata. Umoro oso pertsonal eta berezixari jarraituta biñetak sortzen dittuan José Antonio Fraguas "Forges"-en "La República en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)" izenburuko erakusketan Bigarren Errepublikari erreferentzixa egitzen detsen marrazkixetako batzuren bilduma ikusteko aukeria eukiko dogu gaur hasi eta apirillaren 30era arte, ohiko ordutegixan: martitzenetik domekara 18.30xetatik 20.30xetara. Ikusgai ipiñiko diran biñetak "Historias de aquí", "Forgesek" Espaiñiako historixia kontatzeko sortutako lanaren zatixetako bat osatzen dabe. Hain zuzen be 1980-1984 bittartian "Historias de aquí" 42 kapitulutuan banatutako liburuxkan argittara emondako biñetetako batzuk dira, beti be Errepublikaren sasoiari lotutako gertakizunen gaiñekuak. "Forges" izena aittatzen dan bakotxian "umore" berbia automatikoki burura etorritta be, biñetek osatzen daberen lana





historixa liburua da. Bererezi-  
xa, bai, baiña historixa liburua,  
marrazkixetan agertzen diran-  
nak kontatzeko ipuñaren tekni-  
kia erabillita be, dibujantiak  
azaldutakuak ondo dokumen-  
tautako kontuak diralako.

Edozelan be, azalpen guzti-  
guztiak egillaren ahotik zuzen-  
niantzuteko aukeria be euki-  
ko dau nahi dabenak, apirillaren  
12xan egilliak hitzaldixa emon-  
go dabelako Portalean. Eta ga-  
txa izango da erakusketaren  
gaiñan lanaren egilliak berak  
baiño esplikañio hoberik  
emonga daben baten bat topa-  
tzia, erregular.

### Errepublikako idazlien ahotsa

Ez da hori izango hitzaldi ba-  
karra: bezperan, apirillaren 11n  
Kirmen Uribe izango dogu gu-  
rian. Idazle ondarrutarrak  
"8x10. Zortzi idazle errepubli-  
kako" izenburukua eskinduko  
dau Portalean, apirillaren 11n,  
19.00etan hasitta. Idazlia izan-  
da be, Uriberen biharraren bar-  
ruan ahozkotasanak tarte  
haundixa betetzen dau eta, ho-  
rregaittik, hitzaldixa baiño  
gehixago errezitala izango da  
gurera ekarriko daben saiaua-



Uribe.

ren ardatza, hainbat idazlek  
idatzittakuak gogora ekarri eta  
bere ahotan entzun ahal izan-  
go dira eta.

### Errepubliko eskolia eta edukaziñua

Eta hillaren 13an, toki eta or-  
du berian, Errepublika eta Gerra  
Zibillaren sasoikuetan aditu  
haundixa dan Jesús Gutierrez  
eibartarrak egingo dau berba,  
izenburu honeri jarraituta: "El  
sistema de bibliotecas y la edu-  
cación en el Eibar de la II Repú-  
blica". Historialarixak diñuanez,  
"hitzaldixaren bittartez Eibarren  
orduan sasoian bizi izan zirane-  
ri ahotsa emon nahi detsagu,  
moduren batian gure herriko  
historixan horren bizirik egon-  
dan parte hori galdu ez deiñ.

## PROGRAMIA

### ERAKUSKETIA

**Apirillaren 1etik 30era:** José Antonio Fraguas  
"Forges"-en "La república en la persona muchos  
bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)". Portalean.

### HITZALDIXAK

"8x10. Zortzi idazle errepublikako". Kirmen Uribe.

**Apirillak 11, 19.00etan Portalean.**

"La república en la persona muchos bienes  
proporciona (¡Vamos digo yo!)". "Forges".

**Apirillak 12, 19.00etan Portalean.**

"El sistema de bibliotecas y la educación  
en el Eibar de la II República". Jesús Gutierrez.

**Apirillak 13, 19.00etan Portalean.**

### ANTZERKIXA

"Republicados" (Teatro Interior).

**Apirillak 19, 20.30xetan Coliseoan**  
(XXXIV. Nazioarteko Antzerki Jardunaldiak).

### MUSIKIA

"Errepublikako kantak". Joseba Tapia.

**Maiatzak 27, 22.15etan Untzagan**

(XLVI. Euskal Jaia).

### JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIXA

II. Errepublikari buruzko interesgunia.

**Apirillaren 1etik 30era.**

*Oinguan Errepublikako urtieta-  
ko eskoliari eta bere ingurukueri  
emongo detsagu errepasua".*

### "Republicados", 27'ko Generaziñua goguan

Asteburua ailelegauta, eta XX-  
XIV. Nazioarteko Antzerki Jar-  
dunaldixak agurtzeko, Teatro In-  
terior taldekuak "Republicados",  
80. urteurrena ospatzeko bere-  
ziki sortu eta preparautauko an-  
tezelana jende aurrian estre-  
nauko dabe (apirillak 19,  
20.30xetan Coliseoan). Sardo  
Irisarri eibartarrak zuzenduta,  
antzerki taldiaren errepertori-  
xuan horren sarritan topatzen  
dogun Espaiñiako poeten biha-  
rrak be tartia eukiko dau, zuzen-  
darixak berak azaldutakuaren  
arabera, "27ko Generaziñua



Tapia.

izenarekin ezagutzen dogun ho-  
ri osatu ebenen obriak batez  
be". Maite Lorenzo eta Eduardo  
Falces aktoriekin batera, Juan-  
ma Cano irrati esatarixak aktore  
lanetan debuta eukiko dau ha-  
men lanian.

### Errepublikako kantak Tapiarekin

Eta apirilletik maiatzera salto  
eginda, Eibarko XLVI. Euskal  
Jaixaren testuinguruan, Jose  
Tapia eukiko dogu gurian,  
maiatzaren 27xan Untzagan  
"Errepublikako kantak" eskin-  
tzen. Tapiak "Eta tira eta tunba"  
diskuan 22 kantu batu zittuan  
guztira, batzuk karlistak idatzi-  
ttakuak, liberalak idatzittakuak  
beste batzuk, eta horretxek  
kontatzen dittuenak kantauta  
ekarriko deskuz Tapiak.

Eta programia osatzen dabe-  
nekin amaitzeko, beste hainba-  
tetan egindakuaren bidetik  
Juan San Martin Liburutegixan  
II. Errepublikari buruzko materi-  
xala batu eta nahi dabenaren  
esku ipiñiko dabe liburutegixan,  
apirilla osuan martxan egongo  
dan interesgunian.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko  
osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik  
egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

IGELTSERITZA

**CAMILO  
ALVAREZ**




OROKORREAN

- Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

**Jardiñeta, 25 - behea**  
Etxeko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104

TEEN-  
AJEA



Urbat-Urko elektronik taldeko igerilarien emaitzak ikusgarriak izan dira azken asteotan: ez bakarrik Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, izan da eta Espainia-koetan ere nabarmendu dena. Nekane Tejedorrek ere denboraldi bikaina darama eta Espainiako txapelketan lortutako 6. postua da orain arte berak gehien baloratzen duena.

**NEKANE TEJEDOR, igerilaria:**

## “Gure lorpenak urte askotako emaitza dira”

**- Zenbat urterekin hasi zinen igeriketan? Zenbat urte daramatazu Urbat-en?**

Hiru urterekin hasi nintzen igerilekura joaten. Urbat-en, bestalde, azken hamarkada osoa eramango dut dagoeneko.

**- Taldeak orokorrean eskuratutako lorpen guzti hauek planifikatutako zeozer da?**

Ez dut uste; azken urteotako lanaren emaitza besterik ez. Litekeena da orain txanponak aurpegia erakustea, ordua ere bazelako. Baina lana dago hor atzean.

**- Zeintzuk dira zure lorpen handienak?**

Espainiako txapelketan braza modalitateko 50 metrotan lortutako 6. postuarekin, promesa mailan bikain jardun dut Gipuzkoakoan eta Euskadikoan bai braza modalitateko 50, 100 eta 200 metroetakoetan, eta baita 400 estiloetan.

**- Ikusten denez, braza modalitatea da zurea. Baita gehien gustatzen zaizuna? Zer eskatzen du modalitate horrek?**

Hobeto dagokit, egia da! Nire ahalmenak aprobetxatu besterik ez ditut egiten. Hor gorputza eta hanken arteko sinkronizazioak

asko izaten du esateko. Dena dela, azken aldiari 400 metro estiloetan ere banabil eta ondo ikusten dut nire burua.

**- Talde lana aipatzen duzu. Harreman berezia duzue Urbaten, entrenatzeko gogoz?**

Gure mailan bosna mutil eta neska gaude eta gu baino gazteagoekin ere entrenatzen dugu. Orain, Aste Santuan kontzentrazioa izango dugu Santoñan: han, entrenatzeaz gain, zaldietan ibiliko gara, bizikleta egingo dugu, piraguetan jardun... Hirugarren urtea da bertara goazela.

**- Noiz gozatu duzu gehien igerilekuan lortutako emaitza batekin?**

Orain dela urte bi Bardulia taldearekin erreleboetan lortutako garaipena ondo egon zen.

**- Igeriketarako trataera ona jostzen du komunikabideetan?**

Irtetzen denean, bueno! Baina kasu gutxi egiten zaio... eta hori jende mordoak egiten duen kirola izanik! *Teledortzen* pixka bat jarraitu daiteke; bestela, Olinpiaden zain egon behar da bat!

**- Zeharkaldiak gustoko dituzu?**

Behin izan nintzen: ez nintzen pozik geratu. Berriro saiatuko naiz.

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

etxolajetxea@hotmail.com  
Erreserbak: 943-207019  
Txirio kale, 1

# etxola

## JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak



## Udarako hamaika aukerarekin datoz Gazte Oporraldiak

**A**pirilaren 6an zabalduko da Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu ohi dituen udalekuetarako izena aurrez emateko epea 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat (1994 eta 1997 urte bitartean jaiotakoentzat) eta interesa dutenek hilaren 15era arte izango dute horretarako aukera, zuzenean Foru Aldundiaren [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) webgunean sartuta edo 943 445 980 telefono zenbakira deituta. Bestela ere, Eibarren bertan udalekuen gaineko informazio zabala eskuratu daiteke, Portalean 1. solairuan dagoen Gazte Informazio Bulegoan (943708435 telefono zenbakian).

Aurtengo udan Gazte Oporraldiak programaren barruan eskainiko diren udalekuetako batean parte hartu nahi duenak

argi ibili beharko du eta inprimakia lehenbailehen bete eta entregatzea komeni zaio, aterpetxe eta bestelako inguruko eskaintza zabala izanda ere toki barik geratzeko arriskua izan nahi ez badu behintzat. Orain izena ematen dutenen artean zozketa egingo dute; horren harira, zozketan parte hartzeko onartutako izenak maiatzaren 2an eta 3an kontsultatzeko moduan ipiniko dituzte, eskaera aurkezteko tokietan bertan zein interneten. Nahi duenak erreklamazioa egiteko aukera ere izango du. Programaren arduradunen berbetan, *“Gazte Oporraldietan ahalik eta gazte gehien parte hartzeko aukera izan dezaten, plazak esleitzerakoan lehenetasuna emango zaie aurreko urteetan gutxien parte hartu zutenei”*. Bigarren zozketa bat



egingo da, maiatzaren 5ean eta egun horretatik aurrera joango dira emaitzen berri ematen, kanpainan parte hartu duten bulegoetan eta interneten. Zozketa horretan tokia lortu dutenek maiatzaren 9tik eta 17ra bitartean bete beharko dute behin-betikoko izen-ematea eta, etxean posta bidez jasoko duten ordainagiriaren jarritako kuota ordain-

tzea ahaztu barik. Bestelako argibiderik nahi izanez gero, interneten [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) helbidera jo eta Alicante, Araba, Avila, Cáceres, Galizia, Girona, Huelva, Menorca, Murtzia, Nafarroa, Salamanca, Tarragona, Valentzia eta Zuberoan eskaintzen dituztenak zuzenean kontsultatu ditzakezue. Baietz gustoko zerbait aurkitu?



## Itziokoak frantsesa praktikatzen Parisen

**Urteroko martxari jarraituta, aurten ere Frantziako tokirik esanguratsuenak ezagutzera bidaian joan dira Itzio BHI-ko ikasleak:** martxoaren 22tik 25era bitartean, frantsesa ikasten diharduten 71 ikaslek, 5 irakaslek lagunduta, Paris bisitatzen izan dira: Eiffel dorrea, Louvre museoa, Notre Dame katedrala, Versailles, Montmartre eta Sacré-Coeur, Garaipenaren arku... horiek eta beste hainbat ezagutzeko aukera izan dute eta, nola ez, “bateau-mouche” batean Senan zehar egindako ibilaldiarekin biribildu zuten irteera. Bueltan esan digutenez, *“benetan zoragarria izan da bidaia. Nekatuta, baina oso pozik itzuli gara denok”*.

## La Salleko antzerki taldekoen ikuskizuna

**La Salle Azitain ikastetxeko 1. DBHko ikasle talde batek “Gu Gazteok” izenburuko ikuskizuna prestatzeko gogotik beharrean jardun du,** “ilusio handiarekin”, ordubete inguruko iraupena duen lana gaur jendearean aurkeztu ahal izateko: gaur goizean La Salle Azitain ikastetxekoentzat eskainitako saioan estreinatutako ikuskizuna arratsaldean, 19.00etan berriz taularatuko dute Hezkuntza Esparruko eszenatokian. Eskolatik kanpoko jarduerak ikastetxearen PROYDE-PROEGA Gobernu Kanpoko Erakundeari laguntzeko antolatu dute ikasleek, sarreraren salmentan batutako dirua Argentinan, Cordobako auzo batean dagoen eskolaren hobekuntzarako garatzen diharduten proiektuan erabiliko dute eta. Sarrerak 5 euro balio du 18 urtetik gorakoentzat eta 3 euro, berriz, adin txikikoentzat.





1950. inguruko fotografia. Gaur egun Seguridade Sozialeko anbulatorixua dagan orubia. Fonduan, "Indianokua" Zumarantarren jauregiaren zatixa, jardina tartian. Ezkerrian, Ardanatik Jardinetara doian bidieren kontenziño-ormia; orma horren amaierian Estaziño zentralarekin komunikatzen daben trenbideko tunelaren mendebaldeko sarrera dago. / EIBARKO UDAL ARTXI-BOA. HIRIGINTZA ETA OBRAK FONDOA



Jesus Gutierrez  
historialaria

## Larogei urte eta gero hau

**T**rantsizio sasoiaren alderdi politiko batek honako leloa zabaldu zuen Euskal Herrian: "Berrogei urte eta gero hau". Lelo horren bitartez hausnarketa proposatzen zuten egileek, adierazteko berrogei urteko diktadura sufritu ondoren egoera ez zela bate-re itxaropentsua. Alegia, beste mundu bat posible zela, eta ez ginela konformatu behar gutxienezko demokrazia batekin.

Aste batzuk barru, Estatu osoan eta, nola ez?, Eibarren ere, modu hunkigarrian ospatuko da Errepublikako aldarrikapenaren 80. urteurrena, baina ez dakit ospatu edo gogoratu den hitz egokiena. Adituek diote Espainiako lehenengo demokrazia izan zela, nahiz eta perfektua ez izan. Baina akaso egokia eta perfektua da egungo demokrazia? Perspektiba historikotik, ezin da ukatu Errepublikan sortutako lege progresistenak oinarri izan zirela egun daukagun Konstituzioa osatzeko unean, hori bai XX. mendeko amaierako errealitatera egokituta.

Gauzak horrela, behin eta beriz entzutzen ditugu esku-mako alderdi politikoaren mezuak Errepublika erregimen kaltegarria izan zela Espainiarrentzat adieraziz eta, era berean, nolabait gero sortutako gerra zibila beharrezkoa izan zela ordena berreskuratzeko. Irizpide neutral batetik aztertzen baditugu sortutako legeak, konturatuko gara lege oso aurreratuak zirela eta eragin handikoak gizartean. Ezin da aztertu Errepublika sasoiaren zegoen gizartea eta XXI. mendekoa parekatuz, baina nabarmena da askatasunaren nahia beti azaltzen dela alde batean, hau da, baztertuta dauden esparruan. Eta hori ez da aldatzen urteekin, desio hori iraunkorra baita.

## XX. mendearen bueltan

**TOMAS ETXALUZE**ren kolaborazio honetan (1932-IV-27, Errepublika aldarrikatu eta handik urtebetera), sasoi hartarako garrantzi handiko asmakizunaren berri ematen zaigu. Asmatzailea **ANTONIO OLANO** eibartarra izan zen eta kolaboratzaileak, batez ere, eibartarren kemena eta espiritua goraiatzeko dituen.

### Asmakizun burutsua

Frutu barrixa emon dau Eibarko zuhaitz mekanikuak, naziñoarteraño zabaldu leikiana. Errepidietako pasonibelen arazuari konponbidia eskinduko detsana dakagu esku artian: akabo oiñ arte teknikuendako arantza eta automobilistendako tabua izan dana. Eibarrek ezin zan bizkarra emonda egon naziño guztietan hainbeste hildako eragitten daben arazuaren aurrian. Zeozergaitik menperatzen dittu mekanikaren sekretu guztiak, zerebro burutsuenetik etortzen jakuzen idea guztiak gorde eta erabiltzeko benetako artia erakutsiz. Herriko seme batek ekarri detsa argixa arazuari: Antonio Olano da eibartar peto-petuaren benetako ordezkari hau. Atenziñua emoten dau bagaje zientifiko hain txikixarekin zelan lortzen daben arazua konpontzia! Soluziñua, gaiñera, praktikua izatiaz aparte, elegantia da alde guztietatik begiratuta be. Trenak, mar-txan eta pasonibelarengandik 700 metrora daganian, siren-ia joz edo tinbre batekin, hesixa jaitziko dala abisatu-ko dau. Eta hesixa gitxiñaka juango da ixten trenak 500 metro egitten dittuan bittartian, hau da, pasonibelera aille-gau baiño 200 metro lehenagora arte. Behin trenak hesixa pasauta eta azken konboiak 100 metro egitten dittuan-ian, hesixa barriro hasiko da jasotzen, hasieran zekan posiziñua hartu arte. Mekanismo sistema horrekin, gaiñe-ra, konponbidia emoten jakoz be trenian gerta leikezan aberixeri eta estaziñotik gertuen daguazten pasonibel-eri. Eta, konprobatzia nahi badozue, ez da iñolako guardabar-rrerarik bihar. Nahikua da periodikoki aparatuen rebisi-ñua egittia, inspeksiño horrekin sistemaren funzionamen-du egokixa ziurtatzeko. Aparatua, zeozer bada, injenixua-aren alardia da! Gure herriko biharraren eta jarraikortasu-naren garaipen barri honek, gaiñera, kuestiño honetan

Juan de los Toyos gure udaleko ziñegotzi aktibuenetakua eta diputau gestore azkarrenaren babesa daka, eta berak lortu dau 6.000 pezetako dirulaguntza Diputaziñotik eta, baita, aparatuk bere lehelengo ensaiua egitteko aukera izatia Ferrocarril del Urola tren linian. Olano inbentoriak, holan, zerbitzu garrantzizkua eskindu detsa Humanida-diari; berak kontatzen deskunez, bere asmakizunak, ma-tematikua izatiaz gaiñ, ezin dau kalerik egiñ. Ez dau iño-ren laguntzarik bihar izan: berak dakan intuiziño mekani-kuarekin, gazte zanian Armerixa Eskolan asebetetakua-rekin, eta biharrarekiko dakan griña berezixak nahikua izan dira lan horretara konsagratzeko. Berarengan ikus-ten da, beste edonorengan baiño gehixago, Eibarko bihargin modelua: estudixatu, buruari bueltak emon eta diskurridu, ensaiatu eta taillarrian ejekutatzen dabena. Ez dago gauzarik Eibarren ekitten jakonik eta burutu barik geratuko danik! Hamen dakagu eibartarraren izaeria zelakua dan erakusten daben demostraziño barri bat: gure herrixan bihargin bakotxak bere txabolía daka, bere taillar propixua, bere eguneroko faenetarako, iñongo naguxiren azpizan egon bihar barik biharrarian jarduteko, bere esku azkarrekin eta bere ahalmenarekin bakarrik. Hori bai, era-gitteko ingurua txikixagua edo haundixagua izan leike, zeozer ez badakagu, hori espiritu komertzial madarikatua da-eta; horrek dakar dana arrosa kolorekua ez izatia, gu-re burua saltzia ez dalako dakagun gauzarik marabillo-suena. Espaiñak eukiko baleu guria moduko herririk, ber-tako etxe bakotxa biharrari egindako tenplua eraikitta, Errepublikaren gobernu honek ez leuke biharrik gabeko hainbeste lagun izango eta peninsulan dagan eziñego-na desagertuta egongo zan honezkeru.





## Zaletu onenak eskakizun maila handiko proban


Urtero lez, oraingoan ere afizionatu mailako estatuko txirrindulari onenak izango dira Valenciaga Memorialaren 40. edizioan. Guztira 26 talde izango dira irteeran, bakoitza zazpi txirrindulariz osatua; hau da, 182 parte-hartzaile ahaleginduko dira irabazten Bidebarrietan, San Andres elizaren parean, kokatuko den helmugan.

Lasterketak 164 kilometro izango ditu, aurreko urteotako ibilbide berdinarekin. Gogortasuna ere begibistakoa da, Itziar, Meagas, Elgeta, Areitio, Ixua eta San Migueleko mendateak gainditu beharko baitira. Aurrekontuan ere, iazkoari heldu zaio eta hori nahikoa da bizi dugun krisi sasoi honetan: "37.000 euro", antolatzaileen esanetan.

Eibarko Txirrindulari Elkarteko Jose Antonio Larrea izango da lasterketako zuzendaria eta aursartu zaigu faboritoen zerrenda aletzen. "Prades Espainiako Kopako liderra dugu, Tarragona taldekoa; baita Fraile, Seguros Bilbaokoa, Gorlan aurreko asteburuan irabazi zuena; Comunidad Valencianako Pedro Merino ere hor ibiliko da, garaipenetik gertu; Caja Rurales Francisco García eta Morena ekarriko ditu; eta Debabarrenak ere aurreko urteetan baino aukera gehiago ditu, Aitor González eta Sergio Ruizekin".

Ez da iritzi berekoa Juanjo Se-

bastian, Debabarrenako zuzendaria: akaso presioa kentzeko bere txirrindulariei? "Eibartarrimoa egitea kaltegarria izan daiteke. Aitor eta Sergio ondo dabilta, baina gure txirrindulariak 23 urtetik azpikoak dira -nagusienak 21 ditu- eta, partehartzaileen artean, badira Super-Froizen esaterako, errekalifikatutako zazpi txirrindulari, euretatik hiru beharbada hortik bizi direnak. Horregatik, zaila ikusten dut guretako batek proba irabaztea".



Txirrindularitza zaletasunak ez du behera egin. Argazkian, azken Abascal Memorialeko parte hartu zuten eibartarren taldekoak.



Gainera, Zornotzako Udaberri Sariaren 60. edizioan hartu beharko du parte Eibarko taldeak domekan bertan eta Debabarrena bitan banatuko du Sebastia-

nek: "1. urtekoekin Zornotzan izango gara, Peio Goikoetxea ermuarra eta Eñaut Pagola tartean; eta 2. eta 3. urtekoak izango dira Valenciagan". Azken urteetan, gainera, "Valenciagako irabazleak baino zorte gehiago izan dute atzerago sartu direnak: Amets Txurrukak berak 32.a edo egin zuen eta Euskaltelen dihardu". Sebastianek behe mailan egiten diharduten lana ere azpimarratu du: "Jubenil taldean isileko lanean dihardute, Ciclos Iturriaga taldeak 20 urtetik gora daramatza-eta esparru horretan. Datorren urtean jautzia emateko moduan izango dira, esaterako, Bergarako Rivero eta Irungo Mendia".

### Ixuako pasabidea

Izen horrekin ipini zen martxan iaz argazki-lehiaketa eta aurreneko edozeinek hartu dezake parte hor. Domekako probaren irudiak maiatzaren 6rako entregatu beharko dira Eibarko Txirrindulari Elkartean. Informazio gehiago helbide honetan duzue: cce@clubciclistaeibarres.org

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egiguretarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

**XXXX. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 3)**

**IBILBIDEA**

Km	Ordua	Non
0	08.55	UNTZAGA
0	09.00	AZITAIN (irteera)
5	09.05	ELGOIBAR
18	09.25	DEBA (tarteko helmuga)
24	09.35	ITZIAR gaina (3. maila)
31	09.45	ARROA
39	10.05	MEAGAS gaina (3. maila)
43	10.10	ZARAUZ
46	10.15	GETARIA
52	10.25	ZUMAIA
62	10.45	ITZIAR gaina
67	10.50	DEBA
80	11.10	ELGOIBAR
87	11.20	SORALUZE
94	11.30	BERGARA
100	11.45	ELGETA gaina (2. maila)
106	11.50	ELORRIO
121	12.00	BERRIZ
125	12.10	ARETIO gaina (3. maila)
131	12.15	KANTOI (tarteko helmuga)
135	12.35	IXUA gaina (1. maila)
145	12.45	ETXEBERRIA
150	12.55	SAN MIGUEL gaina (3. maila)
156	13.00	ELGOIBAR
164	13.15	BIDEBARRIETA (helmuga)



**GARAILEA**



**MENDIA**



**TARTEKO HELMUGAK**



**23 URTETIK AZPIKO ONENA**



**SAIATUENAREN SARIA**



**LEHENENGO EUSKALDUNA**

**PARTE-HARTZAILEAK Taldeak:**

- Astaltos Guerola Terra/Mar (Valentzia)
- Seguros Bilbao (Bizkaia)
- Supermercados Froiz (Pontevedra)
- Lizarte (Nafarroa)
- Caja Rural (Nafarroa)
- Azysa Conor WRC (Nafarroa)
- Extremadura - Spiuk (Badajoz)
- Cueva El Soplao (Kantabria)
- Andalucía - Caja Granada (Granada)
- Bidelan - Kirologi (Gipuzkoa)
- Ciudad de Oviedo (Asturias)
- Ayto. Tarragona - Mopesa (Tarragona)
- Mutua Levante - Cafemax (Valentzia)
- Univ. Pol. Valencia - Bancaja (Valentzia)
- Ceuta - Redfree.com (Ceuta)
- Diputación de Avila (Avila)
- KTM - Murcia (Murzia)
- Debabarrena (Gipuzkoa)
- Cafés Baqué (Bizkaia)
- Naturgas Energia (Araba)
- Camargo Ferroatlántica (Kantabria)
- Belca - Oriako T.E. (Gipuzkoa)
- Latorre - Palplastic (Nafarroa)
- Construcciones Paulino (Asturias)
- Redyser - Limcamar - Borrascas (Murzia)

**85. URTEURRENA SARI BEREZIA:** Iruki Sagardotegia / **TALDEKAKO SAILKAPENA:** Soraluze S. Coop. / **DEBABARRENAKO ONENA:** Goritz Hornikuntzak



**UDABERRI SARIA**  
martxoak 6



**ABASCAL OROITZARREA**  
martxoak 20



**OTXOA OROITZARREA**  
apirilak 17



**SAN JUAN SARIA**  
ekainak 18



**PEDAL EGUNA** (irailak 25): Birjiñape kafetegia

**LAGUNTZAILEAK**

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Krabelin (Hotela-Jatetxea)
- Bar Tunel-Pe
- Birjiñape Kafetegia
- Bar Txoko
- Ketesa
- Maitane Jatetxea / Arrateko Tiroa
- Asimair Konpresoreak
- Multiópticas

- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza
- Marqués de Saka Ganadutegia
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Azitain Jatetxea
- Mapfre (Eibar-Ubitxa)
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- Soraluze S. Coop.
- CDR-Bikes Eibar
- Larragest Inmobiliaria

- Kutxa
- Skoda - Autos Menabi, S.L.
- Olarri Leihoak
- Guria Elektrizitatea
- Pneumax
- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Iruki Sagardotegia

## Arratek asko du jokoan bihar Toledon, 18.00etan hasiko den partiduan

**PUNTU BIKO ALDEAREKIN DAUDE SAILKAPENEAN, BAINA KONTUAN IZANDA** Eibarko taldeak gol bakarrarengatik irabazi ziola Gaztela-Mantxakoari Ipuruan (29-28), Julian Ruizen mutilek partidua galtzen badute jaitsiera postuetan sartuko dira. Alderantziz,



irabazteak mailari eusteko hauspoa emango lioke, aurkari zuzenena lau puntura geratuko bailitzateke zortzi jardunaldiren faltan. Taldeari dagokionez, Rédei eta Berriosen bajei Szaborena gehitu zaizkie: kasu honetan, aurrekoen moduan, denboraldia amaitu arteko baja izango da, gainera. Beheko taldetik igotako jokalarien artean gehien erabilitakoena izan da Szabo eta bere tokia ere harrobi-ko beste bateren batek hartu beharko du.

## Narbaizarendako Eibarko eskolarteko txapelketa

**ITZIOKO XAKELARIAK BERE MAILA ERAKUTSI DU BESTE BEHIN** eta, azken asteburu bietan herriko ikastetxeetako jokalarien artean jokatutako txapelketan, nagusi izan da partida guztiak irabaziz. LHko 3. mailatik DBHko 2. mailara arte-rainoko ikasleek hartu dute parte bertan, Itzio, Mogel Isasi, Iturburu, Aldatze eta Urkizu ikastetxeetako jokalariekin.



Bestalde, Gipuzkoako 2. mailako ligan jokatu duen Klub Deportivo 2. taldeak liga amaitu du beste garaipen batekin, oraingoan 1-3 Zarautzen irabaziz. Hala ere, igoera faseko 4. postuan amaitu du taldeak, 3.arekin berdinduta eta igotzea lortu duen Legazpiko Santikutz taldearengatik puntu bakarrera.

## Durango Teknografik baino gehiago izan zen foball-zaletuan

**BIREN ARTEKO BORROKA DAGO FOBALL-ZALETUEN LIGA IRABAZTEKO, BAINA ASTEBURUAN GAUZAK ARGITZEN** joan ziren euren artean jokatutako partiduan. Durangok 3-1 irabazi zion Teknografik-i eta, euren arteko berdinketa apurtzeaz gain, emaitza hori erabakigarria izan daiteke liga amaierarako. Gainera, sailkapenean atzetik jarraitzen duen JoserAuto Sport azken txapelkunak kale egin zuen beste behin eta launa berdindu zuen Txokorekin:

une honetan iazko txapelkunak liderrarengandik zortzi puntura daude. Asteburuan neurketa erabakigarria jokatuko da Teknografik eta JoserAutoren artean eta lehia horretatik onuradun bakarra izan daiteke Durango liderra: azken honek Tankemans-ekin jokatuko du.



Asola-Berrik 26 ordezkari ditu Gipuzkoako txapelketan, bost taldetan banatuta

## Asola-Berrikoak Gipuzkoako hiru-txirloko txapelaren bila

**BIGARREN JAURTIALDIA JOKATUTA, ASOLA-BERRIKO HIRU ORDEZKARI ONDO KOKATUTA** daude Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren XLIII. edizioa bereganatzeko. Imanol Osoro Elgoibarko San Miguel bolatokiko ordezkaria da egungo liderra, bederatzi txirlorekin, eta gertutik jarraitzen diote Gaizka Unamunzagak eta Arkaitz Rodríguezek (8rekin) eta Ibai Díezek (7re-


kin), beste batzurekin batera. San Miguelen jokatutako bigarren jaurtialdi horretan, Lasturko Joseba Lazkano eta Unamunzaga izan ziren onenak, bakoitzak zazpi txirlo etzatea lortuz. Bihar Lasturren jokatuko da hirugarren jaurtialdia (17.00-etan hasita) eta, Eibarko ordezkariari dagokionez, 26 dira txapelketan dihardutenak, Asola-Berriko bost taldetan banatuta.

## Futbito txapelketa antolatzen

**HERRIKO TALDE BATEK EIBARKO FUTBITO TXAPELKETA ANTOLATZEN DIHARDU.** Txapelketa hilaren azken asteburuan jokatuko da (apirilak 30 eta maiatzak 1) Untzaga plazan. Asmoa da hainbat adinetako jendea plazan elkartzea (jokalaria eta ikuslegoa kontuan hartuta), kirola Untzagara bueltatzea (Arrateren sasoi onenak gogoratzuz) eta kirolaz eta beste hainbat ekitaldiz disfrutatzea. Bertsolaritzak eta dantzak ere izango dute euren tokia bertan. Informazio gehiago: 687-180156 zenbakian (Juan Zubiaurre).

## Ane Ziaran junior onena Durangoko duatloian

**DURANGOKO DUATLOIAREN 5. EDIZIOA JOKATU ZEN ZAPATUAN, DENBORALDIKO BIGARRENA DISTANTZIA MOTZEAN** (8 kilometro antxintxika, 39'2 bizikleta gainean eta beste 5 antxintxika berriro) eta Eibar Triatloi Taldeko Ane Ziaran junior mailako onena izan da, emakumezkoen sailkapen absolutuan 6. postuan amaitzeaz aparte. Irabazleak Camargoko Felix Javier Martínez (1h51'31" denborarekin) eta Gurutze Frades Mugarra talde antolatzailearen ordezkaria (2h07'30") izan ziren.







## Xala-Barriola / Aimar-Begino, nor baino nor

**HIRUGARRENEZ JARRAIAN IZANGO DA XALAK ETA BARRIOLAK OSATUTAKO BIKOTEA ASTELENAN;** oraingoan Aimar Olaizolak eta Beginok osatutako bikotea izango dute aurkari finalerdietako fasearen azken jardunaldian. Aurreko bietan garaile izan da Aspeko bikotea eta finalerako txartela esku-eskuan dute ia: 15 tanto egitea besterik ez zaie geratzen. Jaialdia osatzeko antolatutako partiduetan honakoek lehiatuko dute: hasteko, Retegi Bi eta Pascual Aritz Lasa eta Beroizen kontra; eta, amaitzeko, Ongay-Larriaga eta Jaunarena-Arruti, nor baino nor.

## Herriko saskibaloia gorantz doa



**DENBORALDIKO DINAMIKAREKIN APURTUZ, HERRIKO TALDE BIAK GARAILE** izan dira azken partiduetan. Horrela, Ruibalek aurreko jardunaldian Donostiako Alde Zaharrari 67-62 irabazi eta gero, azken jardunaldian Elgoibarren jokaturako derbia irabazi zion bertako Gabi Jatetxeari (43-54). Asteburuan Baskoplastika izango du aurkari, mailari eusteko norgehiagokan. Katu-Kalek ere irabazi egin zuen Donostian: 32-44 Intxaurrondon.

## Rugbilariek Hospitalet izango dute aurkari hurrengo kanporaketan

**GARAIPEN HANDIA LORTU ZUEN EIBAR HIERROS ANETXEK GALIZIAN** eta A Coruña-ko Crat Universidade igoera fasetik kanpo laga zuen. Unben lortutako 13-3koa kanporaketan aurrera egiteko nahikoa izango zen zalantzak zeudenean, garaipen berria lortu zuten eibartarrek (6-11, 6-0 galtzen joan eta gero). Orain eibartarrek aukera bikoitza izango dute igoetzeko: ondo dago horrela izatea lehenengo aurkaria oso zaila delako. Hospitalet-eko kataluniarrek denboraldiko partidu guztiak irabazi ditu eta, aurreko kanporaketan ere, Cowper Universidad de Oviedo aurkariari 0-27 eta 58-0 irabazi dio partidu bietan.



## Partidu handia areto-foballean

**CONCEPTO CREATECH DEBABARRENAKO TALDE NAGUSIAK** bere atzetik dagoen bigarren sailkatua hartuko du bihar, 16.30etatik aurrera, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. 11 puntu ateratzen dio Createch-ek aurkariari, liga amaitzeko sei jardunaldi falta direnean eta, irabaztekotan, igoeratik puntu bakarrera geratuko litzateke.



Igoera eskura dute, beraz, Conceptokoek eta, behin igota, datorren denboraldian Asturias, Kantabria, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako taldeen jokatzear gain, Gaztela-Leongo eta Galiziako aurkariak izango ditu (edo Aragoi eta Kataluniakoak)

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

*Paletilla  
Foie-a  
Entsalada epela  
Otrarrainskak*

*Legatza labean  
edo Bakailaoa bizkaitar erara*

*Solomilloa plantxan  
edo Buztan erregosia ondoekin*

*Degustazio postrea  
edo Gazta-moussea  
edo Limoj sorbetea cavarekin*

*Urteko ardoa, sagardoa edo beste*

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilburieta 20 - beheko eskua

**M FUNERARIA MUGICA**

**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba**

**Tanatorio eta Errausketa labea**


Egoiberran (Signo poligonoan)

- Partikela: multzo eta osagun erabili zerbitzuak
- Korokak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- Eskel Hesi azoko ospitaleen hartzen zaizko
- Nazio eta Nazioarteko trukeak

**Mugica Ehorzketa**  
Ehorzketa labea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

Coro Cano ile-apaintzailea eta personal shopperra da. Personal shopperraren bestelako irudia eskaintzen digu, argi lagata luxuzko zerbitzua ez dela. Madrilen egin zituen ikasketak personal shopper moduan jardun ahal izateko eta, pixkanaka-pixkanak, ahoz-ahokoari esker, gero eta bezero gehiago ditu.



**CORO CANO, personal shopper:**

## "Personal shopper-a ez da bakarrik aberatsendako"

### - Zein da zure lana?

Personal shopper bati dago-kion bezala, jendeari laguntzen diot hobeto sentitu daitezkeen euren irudiarekin.

### - Nola hasten da zure lana?

Lehendabizi bezeroari azterketa morfologikoa egiten diot, bere gorputza ondo ezagutzeko. Bere izaeraren inguruko galdeketa bat ere egiten diot, niretako oso loturik doazelako izaera eta janzkera.

### - Eskari handia dago?

Jendea animatzen doa, gero eta gehiago, erosketekin laguntza eskatzen; hala ere, gehienbat momentu jakin batzuetarako kontratatzen nau jendeak: bataio, eztei eta jaunartzeetan, esaterako.

### - Nolako da zure bezero tipoa?

Bere irudiaz arduratzen den pertsona da, lagundua izateari beldurrik ez diona eta aldaketarako prest dagoena. Nik ez dut inor behartzen arropa jakin batzuk erostera: nire lana pertsona gidatzea da, zer doakion ondo eta zer ez ikusten lagundu behar diot bezeroari.

### - Ez al da gutizia zure zerbitzuak eskatzea?


Ez dut uste halakorik, gaur egun horrela ikusten bada ere. Gehienbat, personal shopperraren irudia berria eta ezezaguna delako, baina itxaron dezagun urte batzuk zerbitzu hau nola hedatzen den ikusteko.

### - Ez al da oso azalekoa norbanakoaren irudiaz hainbeste kezkatzea?

Bai, hala da. Denok dakigun kontua da hau; baina, azken finean, ezagutu berri duzun pertsona baten inguruko uste guztiak hasieran bere irudiaren arabera egituratuko dituzu.

### - Telebistak ematen duen irudia...

Telebistak ez digu publizitate onik egiten lan honetan dihardugunoi. "Callejeros" eta antzerako saioetan agertu izan da gure lanbidea eta normalean aberatsen kontua baino ez dela ematen du aditzera, eta ez da horrela. Hasierako azterketa morfologikoak 120€-ko balioa du, behin baino ez dena egiten eta gero betirako dagoena; ondorengo erosketa ordua 50€-tan kobratzen dut, eta normalean bi edo hiru ordu behar dira erosketak egiteko. Nire telefonoa 615 705 772 da.



## Agenda betea du Napoka Iriak

**APIRILAREN 9-AN ZARAUZKO LIZARDI ARETOAN ESKAINIKO DU KONTZERTUA**, Dayna Kurtz-ekin batera, Gaztemaniak antolatutako emanaldian. Maiatzaren 6an, berriz, Donostiako Kontadores aretoan izango da taldea, Bart Davenport-ekin batera eta handik egun batzutara, maiatzak 13an Ondarroan, kafe antzokian, Mursego eibartarrekin batera.

## 85 urte bizikleta gainean

**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEKOEK 85. URTEURRENAREN INGURUAN ANTOLATUTAKO ERAKUSKETA** ikusi ez dutenek oraindik ere izango dute aukera. Erakustoki bitan banatuta dagoen erakusketan (5. pisuan, Armagintzaren Museoa) 1.300 argazkitik gora ikus daitezke, beste hainbat gauzarekin batera. Erakusketa aretoko bilduma apirilaren 10era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara eta Armagintzaren Museokoa apirilaren 30era arte, eguaztenetik zapatuta 16.00etatik 20.00etara eta domeketan 10.30etatik 12.00etara. Ikustera joaten diren guztiak, gainera, bizikleta ederra eramateko zozketan sartuko dira.



## Hitano ikastaroa maiatzean

**UDALAK, UDAL EUSKALTEGIAK ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAK ELKARLANEAN HITANO IKASTAROA ANTOLATU DUTE MAIATZERAKO:** 10 orduko iraupena izango duen ikastaroa martitzenetan emango da, 18.30etatik 20.30etara Udala Euskaltegian. Ikastaroak hitanoaren oinarriak jaso eta praktikatzeko aukera emango die ikasleei. Izena emateko epea astelehenean, martxoaren 28an hasi eta apirilaren 15ean amaituko da (Udala Euskaltegian, 943 700912), baina maiatzaren 2ra arte ere izango da horretarako aukera Badihardugu Euskara elkartera deituta (943 121775). Ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da.

## Bazkide Jairako txartelak martitzenera arte

**AZKEN EGUNETAN BAT BAINO GEHIAGO DENBORAZ LARRI AILEGATU DA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTERA**, Bazkide Jairako txartel bila eta, hori ikusita, apirilaren 9an egin-go den jai eta bazkarirako txartelen salmenta oraindik ez ixtea erabaki dute antolatzaileek, "azken orduan ibiltzen diren horiek erosteko aukera izan dezaten eta inor txartel barik geratu ez dadin". Beraz, martitzen arratsaldera arte egongo dira salgai txartelak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen bulegoan (10 eurotan helduentzat, 5 eurotan umeentzat).

Bazkideen Jaixa-ren bigarren edizio honetarako ere, 2009an egin zenaren bidetik, Armeria Eskola aukeratu da. Egun osorako egitaraua eguerdiko 12.00etan hasiko da, piskolabisarekin. Ondoren, 13.00ak aldera, jaira gerturatutako jende guztiarekin talde-argazkia aterako da, baina bien bitartean umeentzako antolatutako taile-



rrak eta puzgarriak martxan egongo dira. 14.30etan bazkaria eskainiko da (bertan prestatuko den paella erraldoia, edari postre eta kafearekin lagunduta), 16.30etan pailazoaren emanaldiaren txanda izango da, 17.00etan bingo herrikoia ordua izango da eta 17.30etatik aurrera DJ Arnok giroa alaituko du.



**DATORREN ASTEAN, EGUENEAN ABIATUKO DA 17. KORRIKA TREBIÑUTIK ETA EIBARRE-RA APIRILAREN 13-AN (EGUAZTENA) AILEGATUKO DA**, 20.30ak aldera. Herriko ikasleen eskutik egin ohi den Korrika Txikia ere egun horretan ospatuko da eta, egun horretan herrian giro euskalduna sortzeko asmoz, Eibarko Korrika Batzordeak gonbidapen berezia egin nahi die tabernari guztiei, "Txikito-pintxo" izeneko ekimenarekin bat egitera animatu daitezten. Interesa dute-

nek apirilaren 6ra arte izango dute izena emateko aukera, AEK euskaltegiko 943201379 telefono zenbakira deituta edo eibar@aek.org helbidera idatzita. Edozein modutan ere, Korrikak gure herria zeharkatuko duen egunean tabernak girotzeko musika euskalduna ipintzea eskatzen diete denei. Bestalde, eta Korrikarako girotzen joateko, apirilako lehenengo astean sendabelarren inguruko erakusketa ipini dute ikusgai AEK-n bertan, Aurora Albenizen laguntzarekin.



## Korrika apirilaren 13an ailegatuko da gurera

## laburrak

### TXORI LEHIAKETA

Mauricio Vicuña eta Perfectino González eibartarrak nagusitu ziren Deban, hirugarrenez egin berri duten Txori Kantarien lehiaketan. Vicuña karnabei eskainitako atalean eraman zuen saria eta Gonzálezek, berriz, txokei eskainitakoan. Gipuzkoako hainbat hermitatik ailegatutako 41 karnaba eta 21 txoka lehiatu ziren Debako lehiaketan eta jokoan ziren maila bietan eibartarrak izan ziren nagusi.

### SOSTOA

Eibarko abesbatzak Markinako Xemein abesbatzarekin elkartrukea egingo du eta, horren harira, apirilaren 8an Sostoa abesbatzakoak Markinara joango dira, hango Karmengo elizan kontzertua eskaintzera 20.00etatik aurrera. Markinarrak, berriz, apirilaren 15ean etorriko zaizkigu, 20.00etan Karmengo Amaren elizan hasiko den kontzertuan parte hartzera. Sostoa argitu digutenez, "hasiera batean alderantziko egutegiari jarraitu behar genion eta, horregatik, E-kultura aldizkarian egunak aldatuta agertzen dira, baina azken orduan Markinakoek aldaketa egitea eskatu ziguten eta hauek dira behinbetiko egunak".

### DANTZAREN EGUNA

Datorren asteburuan, hilaren 9an Nazioarteko Dantzaren Eguna ospatuko da eta Biraka Dantzak antolatuta ikuskizuna egingo da Untzagan, 18.30etatik aurrera. Josu Mujikak zuzenduta, 7 eta 30 urtera bitarteko 250 gazte jardungo dute eta, amaieran, Birakak ekainerako prestatzen diharduen "Eurodancing 2011" jaialdiarekin lotutako flashmob baterako grabazioa egingo asmoa dute.

## PETRA BENÍTEZ GALÁN

(2011ko martxoaren 23an hil zen, 95 urterekin)

Senideen izenean,  
**ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.**



## Bihar Haur Liburuaren Eguna ospatuko da Eibarren


**EUSKAL HERRIKO 23 HERRITAN, TARTEAN EIBARRREN**, bihar ospatuko den Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira hainbat jarduera eta ekitaldi garatuko dira. Besteak beste ipuin kontaketak, tailerrak, erakusketak, irakurketak, hitzaldiak, merkatu txikiak, lehiaketak eta tanke-horretako beste jarduera batzuk egongo dira martxan eta horietan parte hartzeko aukera izango du hala nahi duenak. Eibarren, Juan San Martin Li-

burutegian Zurrumurru Antzerki Taldekoek "Mamuak eta beste bizilagun batzuk" ipuina eskainiko dute zapatu arratsaldetan umeen liburutegian, 18.00etan hasita (5 urtetik gorakoentzat, 50 minutuko iraupena). Horrekin batera, "Liburu ezkutuaren bila" irakurzaletasuna bultzatzea helburu duen jokoa ere bihar abiatuko da. Animatzen direnei parte hartzeko zer egin behar den liburutegian bertan azalduko diete eta parte-hartzaileen artean bi-

zikleta zozketatuko dute (bat maila bakoitzeko).

### Euskal literaturako nobedadeak

Bestalde, Juan San Martin Udal liburutegiak otsailean eta martxoan euskaraz idatzitako eta euskarara itzultitako hainbat liburu erosi ditu: "Zazpi orduak" (Miren Agur Meabe), "Bitsa eskuetan" (Miren Agur Meabe), "3 Mariak" (Arantza Urretabizkaia), "Katu jendea" (Eider Rodriguez), "Ihesaldi polita" (Ana




Gavalda) eta "Sexualitatean xirikatzuz" (Maidier Garcia de Vicuña eta Iratxe Porras). Horiek ere, beste liburuak bezala, bertan irakurri edo etxera mailegatu eramateko aukera izango dute nahi dutenek.

## Argazki erakusketak eta lehiaketa

**KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEKOEK ARATOSTEEI ESKAINITAKO ERAKUSKETA BANA ZABALDUKO DUTE GAUR BERTAN**, El Ambigú eta Portalea tabernan hurrenez hurren. Apirilaren amaiera arte martxan egongo diren erakusketak bi horiekin batera, hirugarren bat ere antolatu dute: "Colecciones", Aula 7 argazkilaritza taldearen lanekin osatutakoa Depor tabernan ikus daiteke.

Bestalde, Argazkilaritza Maiatzeko programaren barruan lehenengoz lehiaketa antolatu dute. Estatu mailako argazkilariei zabalduko lehiaketan egile bakoitzak gehien jota bilduma bi aurkeztuta parte hartzeko aukera izango du (bildumak 3 argazkiz osatuta egon beharko dira) edo, nahiago izanez gero, hiru argazki solte aurkeztu daitezke. La-




nak koloretan zein zuri-beltzean egindakoak izan daitezke, edozein teknika erabilita. EL Corte Inglés-eak babestutako lehiaketan hainbat sari banatuko dituzte: bilduma onenak 700 euroko erosketa-txartela eta CEF-en urre-koloreko domina jasoko du eta bigarrenak 500 euroko erosketa-txartela eta CEF-en zilar-koloreko domina; argazki soltekin parte hartzen dutenen artean, lehenengo saria 200 euroko erosketa-txartela eta beste bi sari gehiago emango dituzte (200 euroko erosketa-txartel bana). Euskal Herri mailako lehenengo sailkatzen denak, bestalde, Euskal Herriko Argazkilaritza Elkartearen Federakuntzaren garaikurra jasoko du. Parte hartu nahi duenak apirilaren 12ra arte izango du Klub Deportiboan lanak entregatzeko aukera.

## Sanjuanetarako lehiaketak martxan

**UDALEKO EUSKARA ETA KULTURA BATZORDEAK AURTENGO SANJUANAK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA ANTOLATU DU**, ohiko betebeharreko eta ezaugarri eutsita. Irabazleak 600 euro jasoko ditu eta, gainera, bere kartela herriko denda, taberna eta kaleetako hormetan erabiliko dute San Juan jaiak ailegatzear daudela ezagutzera emateko. Horrez gain, eta Gizartekintza batzordearekin elkarlanean, jaietan alkoholaren kontsumoa kontrolatu eta neurtzeko mezua zabaltzeko pegatina banatuko dute eta hori aukeratzeko ere lehiaketa deitu dute. Pegatina lehiaketako irabazleak 180 euro jasoko ditu. Bien inguruko informazio zabalagoa jasotzeko eta lanak entregatzeko Pegorara jo beharko dute interesatuek, maiatzaren 13a baino lehen.

Eta lehiaketak albo batera lagata baina sanjuanetako testuingurutik aldendu barik, jaietan saltokia kalean jartzeko asmoa duenak maiatzaren 12rako izango du horretarako aukera, Pegoran.



## Gurasoak Martxan

**DATORREN ASTEAN, MARTITZENEAN ETA EGUENEAN, UDALAK ANTOLATUTA HIRU HITZALDI** emango zaizkie

herriko hainbat ikasleren gurasoei, eurentzat bereziki sortu eta garatzen den Gurasoak Martxan programari jarraituta. Arduradunen berbetan, "helburu nagusia heziketa-lanaren egunerokoan baliokoak izango diren erremintak eman eta elkartrukatzear da". Helburu horri jarraituta, hilaren 5ean 18.00etan "Anai-arreba arteko harremanaren izaera eta ezaugarriak" izenburuko eman go dute Mogel Isasin eta egun berean, baina 18.30etan eta San Andres ikastetxean, "Estrategias para educar de 6 a 12 años" izenburuko. Hilaren 7an, 19.00etan La Salle Azitainen "¿Mi hijo es un caso difícil o está pasando por un momento difícil?" galderari erantzuna ematen ahaleginduko dute hitzaldi-sorta.



*Jose Ramon Etxebarria fisikari, injenieri eta Unibertsitateko irakasleak Merezimendu saria jaso zuen hilaren 24an Usurbilen, 2010eko zientzia- eta teknologia- dibulgazioko CAF-Elhuyar sariak banatzeko bertan egindako ekitaldian. Orain dela 40 urte, 1971n eta "Anaitasuna" aldizkarian, argitaratu zuen Etxebarriak Fisikari lotutako bere lehenbiziko artikulua, erlatibitatearen teoriari buruzkoa.*

**JOSE RAMON ETXEBARRIA, Fisika irakaslea:**

## **“Taldean egindako lanaren fruitua da nire proiektua”**

**- Ezustekoa izan da saria? Zelan hartu duzu? Zeozeren adierazgarri da, akaso?**

Ez nuen espero eta itzelezko pozarekin hartu dut. Baina kontuan izan behar dugu talde lana dela nirea eta, horregatik, esango nuke proiektua izan dela saritu nahi izan dutena. Hori bai, aukeratzekotan, sari hoberik ezingo neuke jaso: Elhuyarrek nire bizitzako proiekturik handienetarikoa kontuan hartzeak motibazioerako ere eskergarri da, nahi eta bertan 45 urte eman ditudan dagoeneko. Prozesuari segida emateko balioko du eta taldea osatzen dugunentzako da zuzena; nik jasotzea loteria besterik ez.


**- Ezin duzuna ukatu da bide bat zabaltu zenuela. Horrek izan duen jarraipenarekin pozik?**

Guztiz pozik nago hainbeste urte darman proiektuarekin. Elhuyarren parte ere bihurtu gara eta talde berekoak dira bai Leioako eta baita Injenieritza Eskolako irakasleak. Departamentuan ere zentro bieta-koek hartzen dute parte, koordinaturik. UEUn ere hainbat proiektutan gaude sartuta. Irakasleei buruz, zer esango nizueke?

Gero eta prestatuago daudela, gero eta jakintza gehiagoren jabe... Badago hor, dena dela, gaintzeko dugun arazoa: erabilera-rena. Egindakoa erabili egin behar da gero, naturalki, konfidantzarekin. Ondo dakit nondik gatozen eta zenbat aurreratu dugun: jakintzan dela, azpiegituretan, materialean. Eta ikasle bi euren artean arlo teknikoen inguruan euskaraz jardutea normalizat jo behar dugu gaur egun; ez dago horren beldurrik. Baina, bai eta ez, bizirik jarraitzeko borrokatu beharra dago oraindik.

**- Errebindikazio urte luzeak bizi behar izan dituzu. Inguru hori ikerketarekin tartekatzea zaila izan da? Zer sentazio duzu?**

Inoiz ere ez naiz geldirik egon. Pankartaren atzean nengoenean ere, asko irakurri eta ikasi dut, liburuak idatzi ditut, kolaborazioak egin ditut beste batzuekin; hau da, han zutik egon arren, beti izan dut liburu bat eskuetan. Objektiboki begiratuta, baldintza onenetan egon ez arren, intelektualki aktibo jardun izan dut. Egokitu zaidanaren damurik ez dut. Bizitzako proiektu bat baino gehiago



izan ditut, eta horietako bat izan da ikerkuntza normaltasunez egitearena. Unibertsitateak ere bere gain hartu behar du euskalduntzearena eta irakasle propioen taldea osatzearena horrekin lotuta doa: batek bestea mugiarazten du. Hori izan behar luke herritar euskaldunon proiektua.

**- Gaur egun zein proiektutan zaude murgilduta? Epe laburrari begira, zer duzu esku artean?**

Ikerkuntza proiektuekin dihardut. Datoren astean, esaterako, sariarekin lotutako “Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak” liburua aurkeztuko dugu. Hor ere sinadura nirea izango da, baina talde laguntza izan dut. Nazioarteko arauak euskarara zelan egokitzen diren ikusi dezakegu. Injenieritza Eskolan ere, terminologiaren inguruko datu-basea dihardugu egiten. Beti ere, jakinda hizkuntzarekin lan egiteko komunikazioa beharrezkoa dugula.

**- Badakigu saria jasotzerakoan Eibar aipatu zenuela. Zelan gogoratzen dituzu hemen bizitako urte haiek?**

Gernikan jaiotakoa izan arren, Eibarren hazitakoa naizelako: zazpi urterekin joan ginen horra eta 20 urtetik gora eman nituen hor, behin helduta Santutxura etorri arte. Ezin dela esaten badidate ere, ni osorik naiz gernikarra, osorik eibartarra eta osorik santutxuarra. Nire koadrila eta gaztaroko lagunak hor ditut eta, azken aldian bakarrik hiletetan-eta elkartzen bagara ere, une latz horietan Eibarrera joateak poz ukitua ematen dit. Ideia ezberdinak zituztenekiko errespetua ikusi genuen, koadrila berean mota desberdinetako jendea zelan zegoen... Hori guztiori aberasgarria da. Konturatu nintzen ere, fonetikan desberdinak izan arren, antzerako berbak erabiltzen genituela Gernikan eta Eibarren. Baina, maileguren eta mordoiltasunaren zale izanda ere, zuen euskerak ez du inongo enbidiarik. Harro nago eta errebindikatzen dut nire eibartasuna.



Jose Ramon Etxebarria, erdian, Usurbilgo ekitaldian Elhuyarrek saritutako beste lau kideekin.

ZAPATUA  
**2**  
20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Boris Vian  
ZUZENDARIA:  
Alberto Castrillo-Ferrer  
ANTZEZLEAK:  
Carmen Barrantes,  
Jorge Usón  
IRAUPENA: 70 minutu




*El Gato Negro*

Ikuskizun honek XX. mende hasierako kabareten ausardia, estetika eta erritmoa du. 40. hamarkadako Parisera bidaiara da, jazz eta rock and rollera, amodioa eta umorera, baina bereziki antzerkiaren muinera. Umore eta fantasia handiarekin, gizarateak ferekak baino ostikadak jasotzen duela erakusten duen lana margotzen du.

“En qué se le haga merced”

ASTELEHENA  
**4**  
20.30  
Unibertsitatean

EGILEA:  
Ernesto Filardi  
ZUZENDARIA:  
Ernesto Filardi  
ANTZEZLEAK:  
Iria Márquez,  
Ernesto Filardi  
IRAUPENA: 65 minutu




*Univ. Alcalá Henares*

Cervantesen inguruko hainbat egiazko eta fikziozko pertsonaia, erritmo, poesia eta umoreari eutsiz. Cervantesek gutuna idatziko du lan bat eskatzeko eta, ezetza jasotzean, desengainu prozesua biziko du bere ospe ametsen ostean. *Don Quijote*, *Entremeses* eta *Viaje del Parnaso* idazlanen zatiak tartekatzen dira obran.

“H<sup>a</sup> de España en 70 minutos ”

MARTITZENA  
**5**  
20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Ernesto Filardi  
ZUZENDARIA:  
Ernesto Filardi  
ANTZEZLEAK:  
Javier Rodenas, Luis Paredes, Ernesto Filardi  
IRAUPENA: 70 minutu



*Univ. Alcalá Henares*

Bata bestearen jarraian erreskadan doazen “sketch” alaien bitartez historiaurretik gaurdaino gertatutakoaren errepaso azkarra, 70 pertsonaien partaidetzarekin. Espainiako historiako hainbat atal, batzuk desmitifikatuz eta beste batzuk gogora ekarritz, baina guztiak umore zentzu handiarekin. DBHko 3. mailatik gorakoendako gomendagarria.

“ContraAcciones”

EGUAZTENA  
**6**  
20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Mike Bartlett  
ZUZENDARIA:  
Pilar Massa  
ANTZEZLEAK:  
Pilar Massa,  
Goizalde Núñez  
IRAUPENA: 60 minutu




*Carallada Show*

Lan munduak esparru pertsonalaren gain duen eraginaren buruzko kontzesio gabeko komedia. Ikuskizun honek, ikuslegoa dibertitzeaz gain, erregulazio eta irazpen aske sasoi honetako kontzientziak astindu nahi ditu. Emma eta Darren lankideak irteten hasi dira eta nagusiak uste du hori sinatutako kontratuaren aurka doala.

“La Bohème de Puccini”

EGUENA  
**7**  
17.30/21.00  
Unibertsitatean

ZUZENDARIA:  
Robert Domhelm  
AKTOREAK:  
Anna Netrebko,  
Rolando Villazón,  
Nicole Cabell, Adrian Eröd, Vitaly Kovalyov  
IRAUPENA: 110 minutu




**ANTZERKIA ZINEMAN**

Zinema, antzerkia eta opera bat eginda. Mimi eta Rolando Villaón dira Puccini konpositore italiarraren musikaz girotutako drama erromantiko honen protagonistak. Maitasun istorio dramatiko honetan, ahotsak eta arimak izango dira nagusi xarma eta maitemintze, zelo eta damu, txirotasun eta heriotza... dena erakutsiz.

“Hámster”

BARIXAKUA  
**8**  
20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Santiago Cortegoso  
ZUZENDARIA:  
Fernando Soto  
ANTZEZLEAK:  
Marián Bañobre,  
Juanjo Otero  
IRAUPENA: 65 minutu




*Juanjotero Producciones*


Gizakia animal kaiolatua dela metafora hartuta, bi marraskari (arra eta emea) gai unibertsalez mintzatuko dira. Gizakia berez da kontrajarria, erabakietan aurrera edo atzera egin dezakeena; dualtasun hori izango da ikuskizunaren muina, umore zentsu handiarekin landua, bi hamsterrek bizi duten egoera aspergarriaren erdian.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JÜRGEN, astelehenian lau urte bete zenduazena-eta. Muxu asko lehengusu-lehengusiñen partez.




Zorionak, MAITE, bixar urtiak egingo dozuzelako. Ondo pasau, Mikel, Maialen eta etxekuen partez.



Zorionak, ANE Azpiri, domekan bost urte egin zenduazena-eta. Etxekuen eta, batez be, aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, NAHIA, eta urtebetez egun zoragarria izan dagizula. Muxutxuak etxekuen partez.



Zorionak, KALAKA, eguaztenian zazpi urte egin zenduazena-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.




Zorionak, JONE, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, CRISTINA, atzo zortzi urte bete zenduan-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, PERU, eta eskerrik asko urte honetan zihar emon diguzun zoriontasunarengaitik.




Zorionak, MARKEL Arriola Garro, domekan urtebete egingo dozuz-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, CLAUDIA, martitzenian lau urte egingo dozuzelako. Muxu handi bat famelixaren partez.


## zinea Coliseoan



### "El discurso del rey"

Zuzendaria: Tom Hooper  
Aktoreak: Colin Firth, Geoffrey Rush, Helena Bonham Carter, Guy Pearce

1ean: 22.30  
2an: 19.45 eta 22.30  
3an: 19.30  
4an: 20.30



### "Winter's Bone"

Zuzendaria: Debra Granik  
Aktoreak: Jennifer Lawrence, John Hawkes, Kevin Breznahan, Dale Dickey

1ean: 22.30  
3an: 19.30  
4an: 20.30



### "Encontrarás dragones"

Zuzendaria: Roland Joffé  
Aktoreak: Olga Kurylenko, Unax Ugalde, Derek Jacobi, Dougray Scott

1ean: 22.30  
2an: 19.45 eta 22.30  
3an: 19.30  
4an: 20.30

Zorionak, IMANOL, eguaztenian urtiak bete zenduazelako. Laztan handi bat laguneren partez.



## HILDAKOAK

- Sor Enriqueta Hernández González. 63 urte. 2011-III-15.
- Juan de Dios Zafra Blanca. 81 urte. 2011-III-23.
- Cecilio Razquin Unanua. 88 urte. 2011-III-24.
- Teofila Monedero Zapatero. 88 urte. 2011-III-24.
- Sebastiana Aranguren Olaizola. 80 urte. 2011-III-27.
- Polonia Loichate López. 96 urte. 2011-III-28.
- Jose Antón Rodríguez. 86 urte. 2011-III-29.
- Mikel Beistegi Arzuaga. 60 urte. 2011-III-29.
- Fernando Sáez Vesga. 61 urte. 2011-III-30.

## JAIOTAKOAK

- Maider Salgado Soto. 2011-III-16.
- Ander Altuna Huerta. 2011-III-19.
- Galder Sarasketa Salomón. 2011-III-19.
- Ruth Marrón Dos Santos. 2011-III-20.
- Ane Larrañaga Ros. 2011-III-22.
- Lucia Cortés Idrobo. 2011-III-22.
- Itsaso Eraso Izpizua. 2011-III-22.
- Alain Lafuente Iturbe. 2011-III-24.
- Alba Prada López. 2011-III-25.

## horoskopoa

**ARIES**

Benetan argia zara! Ez dakit nola lortzen duzun, baina besteek zuk nahi duzuna egiten dute beti, eta pozik gainera!

**TAURUS**

Burugogorregia zara eta, batzuetan, zeure buruari mesede egin beharrean, kalte egiten diozu. Kontuz! Zaindu egizuz jarrera horiek!

**GEMINI**

Zer pasatzen zaizu azken aldian? Benetan ez dago zu agoantatzerik, eh! Gauzak lasaia go hartu beharko zenituzke, ondoezik izan baino lehen.

**CANCER**

Zer demontre egiten duzu, beti diru barik ibiltzeko? Kontrolatu ondo zertan joaten zaizun dirua eta gastuak murriztu. Baietz, ahal duzula.

**LEO**

Alaia zara, baina azken aldian makal zabalitza. Apur bat gehiago zaindu beharko zara: bizitza osasuntsuagoa eramatea komeni zaizu, ziur!

**VIRGO**

Astebururako planik ez? Normala! Erosoegia zara. Zuk ez duzu inoiz ezer proposatzen eta lagunak planak egiten aspertu dira dagoeneko.

**LIBRA**

Non zaude? Azken aldian beti zaude zure gauzetan pentsatzen eta arazo txiki horri mila buelta ematen. Horrela ez goaz inora. Ala bai?

**SCORPIUS**

Nork esango zizun zuri look aldaketa txiki horrek zure bizitzan halako aldaketa ekarriko zuenik, ezta? Bada, ikusi duzu zelan gertatu den.

**SAGITTARIUS**

Poz-pozik zabalitza... Zergatik ote? Zure begien disdira horrek erabat maiteminduta zaudela adierazten du... Ez duzu inor engainatuko!

**CAPRICORNIUS**

Pilak ondo kargatuta daukazazu? Datozen hilabeteetan lanpetuta ibiliko zara eta indartsu egotea komeni zaizu. Egin kasu behingoz!

**AQUARIUS**

Beti besteek nahi dutena egiten duzu, ez zara inoiz kexatzen, ez zara haserretzen... Hain ona zara, edonor zutaz aprobetxatu daitekeela.

**PISCIS**

Azken aldian oso estresatuta ibili zara; baina, lasai, sasoi horiek atzean geldituko dira eta aurrerantzean lasai ibiliko zara. Hori atsedena, hori!

## Barixakua 1

**MUSIKA**

**19.00.-** "Gu gazteok", La Salleko ikasleen ikuskizuna. Hezkuntza Esparruan. 3 euro.

**MUSIKA**

**22.00.-** "Música vinilo!". Bost tabernan.

## Zapatua 2

**ZAPATUKO IPUINA**

**18.00.-** "Mamuak eta beste bizilagun batzuk", Zurrumurru antzerki taldearen eskutik (Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna). Umeen liburutegian.

**ZEZENZALEEN BATZARRA**

**19.00.-** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteko hildako bazkideen aldeko meza. San Andres elizan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Cabaré de caricia y puntapié" (El Gato negro, Zaragoza). Coliseoan.

## Domeka 3

**TXIRRINDULARITZA**

**08.55.-** XL Valenciaga Memoriala. Irteera Untzagan. Helmuga 13.15etan Bidebarrietan.

**ZEZENZALEEN BATZARRA**

**11.30.-** Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteko urteko batzarra, San Andres elizako aretoan. Jarraian, psikolabisa.

**14.30.-** Bazkide eta lagunen bazkaria, Arrate hotelean. Bazkalostean omenaldia egingo diote Antxon Iraolagoitia Orbeari.

## Astelehena 4

**IKASTEN**

**15.30.-** Sendabelarren Foroa: Kilimonera irteera, bertatik bertara hango landareak ezagutzeko. Irteera Untzaga plazatik.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "En qué se le haga merced" (Alcalá de Henares Unibertsitatea, Madril). Hezkuntza Esparruan.

## Martitzena 5

**MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA**

**05.00.-** "Gure lan eta bizi baldintzak erabakitzeko eskubidearen alde" lelopean Madril en egingo den manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Ginetik.

**IKASTEN**

**10.00.-** "Culturas precolombinas", M<sup>o</sup> José Noainen eskutik (bakarrrik Kutxa Ikasgeletan matrikulatuta daudenentzat). Armeria Eskolan.

**GURASOAK MARTXAN**

**18.00.-** "Anai-arreba arteko harremanaren izaera eta ezaugarriak". Mogel lasin.  
**18.30.-** "Estrategia para educar de 6 a 12 años". San Andres ikastetxean.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Historia de España en 70 minutos" (Alcalá de Henares Unibertsitatea, Madril). Hezkuntza Esparruan.

## Eguaztena 6

**IKASTEN**

**10.05.-** Mendi ibilaldia: Mutriku-Santa Elena. Saturraran eta Ondarroa. Autobusa Untzagatik irtingo da.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Contraacciones" (Carallada Show, Prem Teatro, Madril). Coliseoan.

## Eguena 7

**IKASTEN**

**10.00.-** "Coaching", Equiliaren eskutik. Armeria Eskolan.

**EUSKAL HERRIKO ITZULIA**

**17.15.-** Amurrio-Eibar 4. etaparen amaiera. Arraten.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17.30 eta 21.00.-** Antzerkia Zineman: "La Bohème" (Zuz: Robert Dornhelm). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**TORIBIO ETXEBARRIA SARIAK**

**19.00.-** Toribio Etxebarria sari-banaketa ekitaldia. Coliseoan.

**GURASOAK MARTXAN**

**19.00.-** "¿Mi hijo es un caso difícil o está pasando por un momento difícil?". La Salle Azitainen.


## bekak

– **Juan San Martín ikerketa beka.**

Gaia: Mendizaletasuna.

Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo [www.eibar.net](http://www.eibar.net) helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.





**erakusketak**

- Apirileko lehenengo astean **SENDABELARREN** erakusketa, **SAURORA ALBENIZ**-en laguntzarekin (Korrika Kulturala). *AEK Euskaltegian.*
- Apirilaren 8ra arte **LLORENÇ PIÉ**-ren argazki erakusketa. *Deporren.*
- Apirilaren 10era arte **EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**-ren 85. urteurreneko erakusketa. *Portalean* (erakusketa aretoan).
- Apirilaren 30era arte **EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**-ren 85. urteurreneko erakusketa. *Portalean* (Armagintzaren Museoa, 5. pisuan).
- JOSE ANTONIO FRAGUAS "FORGES"**-en "La república en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)". *Portalean.*
- II. ERREPUBLIKA**-ren Aldarrikapenaren 80. Urteurrenaren inguruko interesgunea. *Juan San Martin liburutegian.*

**lehiaketak**

- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.** Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, [arrate.kultu@eibar.org](mailto:arrate.kultu@eibar.org) edo 943202299 zenbakia. Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16-1), bulegoetan edo tabernan.
- **Ixua-Valenciaga Memoriala argazki lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzak 6ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behean) edo [cce@clubciclistaieibarres.org](mailto:cce@clubciclistaieibarres.org).

**farmaziak**

- 1, barixakua**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 2, zapatua**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 3, domeka**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 4, astelehena**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 5, martitzena**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 6, eguaztena**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 7, eguena**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 8, barixakua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

	6	9		5		2	8	
			1	6				
5								3
		2				9		
7	1	3		5	8			4
		5				7		
9								2
			7	9				
	2	3		4	6	9		

**DENBORAPASAK**

3	9	8	7	2	1	4	8	5
6	2	7	3	5	4	1	9	8
5	4	1	8	6	9	3	7	2
2	8	4	1	3	6	9	5	7
1	6	9	4	8	7	2	3	6
7	3	6	2	9	6	8	1	4
8	1	2	6	7	8	6	4	3
4	7	3	6	1	2	5	8	9
8	6	5	9	4	3	7	2	1

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Apartamentu polita salgai Mendaron. Logela handia, egongela, sukaldea eta komuna. Berria (2001ekoa). Bizitzera sartzeko moduan. 126.500 euro. Tel. 652-718426 eta 666-349860.
- Pisua salgai Barrena kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Igogailua eta fatxada berriarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkiak. 192.000 euro (negoziagarria). Tel. 626-100783 eta 943-254533.
- Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 126 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta trasteroa. Guztiz berria. Argitsua. Tel. 626-203838.
- Errekaxun pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Tel. 636-930962 eta 649-091192.
- Estrenatzeko pisua salgai Añan. 68'5 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukaldea eta komun bi. Igogailuarekin. Argitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 687-122826 eta 943-901908.

### 1.2. Errentan

- Eibarren logela independentea alokagai. Komuna, mikrouhinak, telebista. Garajea aukeran. Tel. 652-765200.
- Barrena kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 697-721417.
- 3 logelako pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 681-322442.
- Pisu txikia (logela bi) alokatuko nuke Eibarren. Tel. 693-509830.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Karabana finkoa salgai, abanxe osoarekin. Extrak: hozkailua, garbigailua eta dutxa Mutrikuko Santa Elena kanpingean. Tel. 615-761825.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.
- Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m<sup>2</sup> ingurukoa. Aterpearekin. Tabernarako egokia. Prezio ezingarria. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

### 3.2. Errentan

- Urkizu inguruan gazteentzako lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 20.30etatik aurrera. Tel. 656-736509.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-031640.
- Neska eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 671-971930.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko ospitalean. Tel. 629-994385.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 618-354218.
- Gizona eskaintzen da gidari lanerako. Karnet guztiekin eta furgonetarekin. Tel. 649-651000.
- Gaztea eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, nagusiak zaintzeko... Tel. 689-974001.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Tel. 678-972690 eta 943-530795.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 635-355168.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.
- Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-187901.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-008974.
- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko taberna, jate-txe edo hoteletan. Esperientzia. Tel. 664-067280.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 638-249775.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 688-884746.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da 16.00etatik 20.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-822570.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka edo interna. Tel. 626-068463.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-254063 eta 680-278485.
- Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 608-174645.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 635-313375.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egunez zein gauzez. Klinika-laguntzaile tituluararekin. Tel. 619-511798.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan jarduteko asteburuetan. Tel. 645-366859 eta 943-257261.

- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-506777.
- Emakume euskalduna eskaintzen da 14.30etatik 16.30etara garbiketarako lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 618-875007.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 943-530795 eta 678-972690.
- Mutila eskaintzen da igeltsero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377.

### 4.2. Eskaintzak

- Eibarko ileapaindegi batean 1. mailako ofiziala behar da. Tel. 943-254512.
- Neska behar da asteburuetan jate-txe bateko sukaldean lan egiteko. Tel. 943-121262.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Bikiendako McLaren aulkia salgai. Erabat ekipatua. Tel. 600-866865.
- Mendiko bizikleta salgai 6-12 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 45 euro. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238. Itziar.
- Autorako umeen segurtasun aulkia (9-24 kilo) eta egurrezko trona salgai. Tel. 617-256466.
- Ezkontzako soinekoa salgai. 40 tailakoa. Merke. Tel. 617-256466.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Eratzuna topatu da Julian Etxeberria kalean. Inskripzio-darekin. Tel. 943-702297.


### 6.4. Bestelakoak

- Katakumea hartuko nuke. Tel. 639-044348.
- Lau bizikletarako erremolkea, bolan lotzekoa, erosiko nuke. Tel. 646-293311. Alberto.

...eta kitto!-ren


itzulpen

zerbitzua



ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelera,  
gaztelertik  
euskara,  
eta ingeletik  
euskara.

- Urte askotako  
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
EGOKITUko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75